

Eguna an deramazu aise
Zure modukuen gustuz,
Jan eta edan ederki ase
Atseginak ongi artuz.

Maain artarik atera orduko
Paretaketan zabilta,
Arek lagundurik atchikitzeke
Berdintsu zure balantza.

Ardura bazabiltz merkatutan
Eta tratu bide guti,
Etcheratzen zaizkit gauerditan
Kasik ola zabiltz beti.

Berandu etortzen zinen batez
Gertatua den afera:
Ederki trunpatu zinen atez
Ganik auzoko etchera.

Ene kalakak kechatzen zaitu
Untan beraz lana bego,
Oro nik erran bear banitu
Zer ez nuken errateko.

Ea, ea
Ai zer senarra (*bis*)
Juanak arrozoina du (*bis*)
Obeago izanen zen
Senarrik artu ez balu.



¿BLANKUAN?



Berrogei ta amarbat
Apirill munduan
Daramazkiyen atso
Lodi bat lenguan,
Ari zan gazterika
Ezkontzen diraden,
Trištien ikuskizun
Aundiyak kontaktzen.
Eta nik jakiñikan
Ollandaren berri
Niyon: ¿urte zai beraz
Egoin da beorri?

MIGEL A. INARRA-K.

